



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko ekainaren 8a

82. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzko Osoko Bilkura monografikoak onetsitako erabakiak (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da klima-aldaketak herrialde txirotuetako emakumeengan daukan eragin handiagoa aitortu dezan eta nazioarteko erakunde eskudunetan horri begira lan egin dezan. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikoko ikasleak Padre Moret BHIan matrikulatzea erraztu dezan, ikasle horiek Bigarren Hezkuntza British programa elebidunaren barnean jasotze aldera. Hezkuntza Batzordeak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da erraztu dezan Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikotik datozen ikasleen matrikulatzea Padre Moret-Irubide Institutuko British programan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko espezialitateetako autoderibazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Iruñeko Cardenal Ilundáin Ikastetxe Publikoko ikasleei Ingelesez Ikasteko Programako ebaluazio-probak egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Iruñeko Cardenal Ilundáin Ikastetxe Publikoko ikasleei Ingelesez Ikasteko Programako ebaluazio-probak egiteko moduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Iruñeko Cardenal Ilundáin Ikastetxe Publikoko ikasleei Ingelesez Ikasteko Programako ebaluazio-probak egin direnean bertan egon diren pertsona helduei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Defentsa Ministerioak sustatutako 'Carta a un militar español' literatur lehiaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren baitan sortutako Berdintasun Batzordearen lanari, helburu eta azterlanei, txostenei edo proposamenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

- Galdera, Reina Sofia Ospitaleko larrialdi zerbitzuan 2016ko apirilaren 18an gaixoei emandako zerbitzuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, “Panamako paperei” buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Tuterako Osasun Barrutian 2010etik 2015era egindako inbertsioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak zer arrazoi darabilen Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat LOMCEk ezartzen duen ebaluazioa ez egiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, atzerriko hizkuntzetan C1 maila daukaten irakasleentzako lanpostuetarako deialdia egin ahal izateko araudi-aldaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Lan-eskaintza Publikoko desorekak konpontzeko den funtzionario erretiratuen ordezkatzeta-tasa dela-eta Hezkuntzako kontseilariak egindako eskariari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Lanbide Heziketako erdi mailatik goi mailara igarotzea, titulazioa eta sarbidea, Batxilergoko 2. maila errepikatzea eta DBHko 4. mailako ibilbideak direla-eta Hezkuntzako kontseilariak Hezkuntzako ministroari egindako eskariari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, jakitekoa ea zer txosten tekniko eta juridikotan oinarrituta hartu duen Hezkuntza Departamentuak Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat LOMCEk ezartzen duen ebaluazioa ez egiteko erabakia. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Ingelesezi Ikasteko Programaren diagnostikorako azterlan soziologikoaren kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, atzerriko hizkuntzako hamabi ordu baino gehiago ematen dituzten Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, hizkuntza- eta zientzia-gaitasunak direla-eta Hezkuntza Departamentuak egingen dituen proba diagnostikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikari lanpostu bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko. Izangai onartuen behin betiko zerrenda (25. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzko Osoko Bilkura monografikoak onetsitako erabakiak.

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko maiatzaren 27an egindako Osoko Bilkuran, honako ebazpenak onetsi zituela, Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzkoak.

“Lehena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Hezkuntza Departamentuak azpimarra dezan, hezkuntza-sistemarekin zerikusia duten eragile guztiekin batera, tolerantziaren, errespetuaren eta aniztasunarekiko arretaren balioetan hezteko beharra.

– Hezkuntza Departamentuak arreta berezia jar dezan, ikastetxeekin lankidetzan, eskola-jazarpenaren prebentzioan hezteko eta esku-hartzeko mekanismoak eratzeko, jazarpenak gertatzen diren kasuetarako.

– Irakaslearen autoritatea sustatzea, foru lege baten bidez.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du NUPerako urte anitzeko finantzaketa-plan bat berma dezan, kudeaketaren eraginkortasuna sustatu eta aurrekontu egonkorra edukitzea ahalbidetuko diona, helburuei eta erronkei arrakastaz heltzeko.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurkez dezan, NUPekin alde aurretik hitzartuta, urte anitzeko finantzaketa-plan bat, datozen urteei begira. Planak NUPen finantzaketa-beharrak bilduko ditu, eta zati bat edukiko du oinarrizko finantzaketari eskainia, eta beste bat helburu jakin batzuei buruzkoa, nafar gizarteak gure unibertsitate publikoari eskatzen dizkion intereseei jarraikiz.

Laugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar adinako ikaspostu kopurua berma dezan Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxeetan, ikasketa horien eskaerari erantzuteko, hezkuntza-eskaintza berrantola dezan eskualde bakoitzeko behar sozioekonomikoen arabera, oinarrizko Lanbide

Heziketaren arautegia eta antolaketa zehatz ditzan, Nafarroak arlo horretan dituen eskumenen barnean, eta heziketa zikloetako curriculumetan sar ditzan hura modu bikoitzean emateko aukera eta hizkuntzen irakaskuntza.

Bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– CREENA-Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroari behar dituen baliabideak eman diezazkion, ezgaitasunari arreta emateko espezializatutako erakundea eta hezkuntza premia berezien arloko guztia koordinatzeko entitatea baita, ikasleek hezkuntza sisteman eskola integrazioa hobea izan dezaten laguntze aldera.

– Neurriak bultzatuz, ezgaitasuna duten ikasleei sarbidea ahalbidetzeko curriculumera, guneetara, IKTetara eta garrira, funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztietan. Halaber, ezgaitasunen bat duten gurasoei (eta/edo tutoreei) formatu eskuragarri eta ulergarrietan helaraz diezaieten haien seme-alaben gaineko informazio guztia.

– Ikastetxeei eska diezaien ezgaitasuna duten ikasleek parte hartzeko, gainerako ikasleendako baldintza beretan, ikastorduetan programatutako irteeretan, eskolaz kanpoko jardueretan eta jantokietan.

– Ikasleak hezkuntzaren erdigunetzat jo ditzan, edozein dela ere ikastetxeen hizkuntza eredu eta/edo programa. Horri begira, neurriak ezarriko dira ikasle bakoitzaren garapenera erantzuteko, haren beharrez eta gaitasunen arabera.

– Balioan jar ditzan izaera inklusiboa duten hezkuntza-berrikuntzako ereduak, hezkuntza komunitate osoa inplikatuko dutenak. Horretarako, jardunbide egokitzat aitortuko ditu eta geroko une batean hezkuntza sisteman ezarriko ditu.

– Irizpide berezi eta zehatzak ezar ditzan ezgaitasuna duten ikasleendako arretari begira, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko

ez-unibertsitarioetan kalitatea kudeatzeko sistematik garatu, ezarri eta aitortzeko betekizunetan.

Seigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du hasiera eman diezaien behar diren izapide eta bilerei, zeinek ahalbidetuko baitute Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntzaren aldeko itun bat lortzea.

Zazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Haur Hezkuntzako Lehen Zikloak duen hezkuntza-izaera ukaezina ikusita, aipatu zikloa Hezkuntza Departamentuak kudea dezan, hezkuntzako gainerako etapak bezala.

2. Foru lege edo foru dekretu bidez gara eta arautu dezan Haur Hezkuntzako lehen zikloa, hezkuntza-etapa horren berezko ezaugarri jarraituz.

3. Ikasleak onartzeko eta kuotak berrikusteko irizpideak alda ditzan, udalei behar den finantzaketa bermatuz, Hezkuntza Departamentuak eskumena bere gain hartzen ez duen bitartean.

4. Herritar guztiei berma diezaien Haur Hezkuntzako 0-3 zikloa jaso ahal izatea, berdintasun, kalitate, ekitate eta iraunkortasun-berme baldintzetan, edozein dela ere haien bizilekua.

5. Hizkuntza-eskaerari erantzun diezaion, Nafarroako bi hizkuntzetan, Foru Komunitatearen lurralde osoan.

6. Zorrotz kontrola dezan 0-3 urte bitarteko haurrentzat irekitako zentro guzti-guztietan baldintzak eta araudia betetzea, Haur Hezkuntzako Lehen Zikloan guneei, osasun- eta higiene-baldintzei, giza baliabide eta baliabide materialei, ordutegiari, langileen titulazioari eta ratioei dagokienez ezarritakoak.

7. Behar diren urratsak egin ditzan Nafarroako Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko ikastetxe publiko guztien kudeaketa komuna egiteko.

Zortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Landa-eskolak mantentzeko apustu irmoa egin dezan, indarra duen arautegia malgutuz, beharrezkoa izanez gero, eskola horien iraupena ahalbidetzeko.

2. Hezkuntza-konpentsazioko neurri bereziak ezar ditzan landa eremuan eta eskola-kontzentrazioetan.

3. Abian jar dezan, luzamendurik gabe, aurreko legegintzaldian Parlamentuaren gehiengoak onetsi zuen dekalogoak.

Bederatzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du lan egin dezan Europako testuinguruan erreferentzia izan den Lanbide Heziketa bat lortzeko, gure komunitatearen garapenerako giltzarri gisa, gure gizarteko lan mailari balio gehigarria ematen dioten profesionalak prestatu eta kalitatezko enplegu egonkorren sorreran eraginen baitu. Horretarako, honako hau proposatzen dugu:

– Eskaintza berriz diseinatzea, ordezkari-entzako mahai bat edukita, enpresen parte-hartzearekin, eta eskaintza hori epe ertain eta luzean sortzen den eskaerari egokituz; halaber, titulazio berriak ezartzea eta gaurko ikaspostu kopurua handitzea.

– Online prestakuntza era malgu eta zeharkakoan eskaintzea, ikastetxeko prestakuntza urrutiko prestakuntzarekin eta lan-inguruneke prestakuntzarekin uztartuz.

– Prestakuntza hori Nafarroako Berrikuntzarako Sistemarekin lotzea. Era berean, koordinatzea eta lerrokatzea Nafarroako S3 Plan Estrategikoekin: Nazioartekotzea, Industrializazioa eta Ekintzailetza direlakoekin.

– Instalazioen modernizazioan inbertitzea, eta Nafarroa osoraino zabaltzea.

– Ikasleen eta irakasleen nazioarteko mugikortasuna sustatzea.

– Euskarazko eskaintza handitzea.

– Helduen prestakuntza jarraitua eta ezgaitasuna duten pertsonen lanbide heziketa bermatzea, dagokion titulazioarekin.

– Lanbide Heziketa sustatzeko informazio eta sensibilizazio kanpainak egitea. Amaiera ematea Lanbide Heziketaren irudi bati; hain zuzen, eskola porrotaren hartzaile eta bakarrik behe mailako eginkizunetarako prestatzaile izatearen irudiari.

– Ikastetxe integralak sortzea.

– Ahal den guztian indartzea Hezkuntza, Garapen Ekonomikoko eta Eskubide Sozialetako Departamentuen arteko lankidetzak, haien ardura baita Erkidegoaren garapen ekonomikoa bultzatzea, herritarren enplegarritasuna sustatuz eta lanbide maila igoz, era horretan langabezia eta desberdintasun txikiagoetara iristeko. Hori da, halaber, langabetu eta landunei zuzentzen zaizkien prestakuntza-jarduera arautugabeetan baliabideak optimizatzeko modua, enplegurako politika aktiboaren bidez.

Hamargarrena. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du hezkuntza eskaintza berrantolatzea irakaskuntza ez-unibertsitario publiko mailatan, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-jardunak erantzun diezaien haren inguru fisiko-sozialeko biztanleriaren eskolatzeko-beharrizanei eta hezkuntza-aukera berdintasunari. Ildo honetatik, Nafarroako Gobernua premiatzen du eskolatzearaudia alda dezan, ikasleak ikastetxeetan banatzeko irizpideak izan daitezen hurbiltasuna, aukera berdintasuna eta ikasleak ez baztertzea haien sexua, bizilekua, jatorria, erlijioa, gaitasuna edo ikasleen beste edozein inguruabar indibidual zein familiar dela eta.

Hamaikagarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Kontrol-tresnak ezar ditzan, ikastetxe pribatu-itunduek jasotako funts publikoak gardentasunez kudeatzen eta erabiltzen direla bermatzeko.

2. Ikastetxe pribatu-itunduetako langileen hautaketa eta kontratazioa prozesu publiko eta demokratiko baten bidez eginen direla berma dezan, gardentasuna eta aukera-berdintasuna ziurtatzeko.

3. Berma dezan familia guztiek aukera izanzen dutela beren seme-alabak matrikulatzeko aukeratzan duten ikastetxean, aukera hori inongo arrazoirengatik ere ukatuko ez zaielarik.

4. Ikasleak onartzeko eta barematzeko prozesua publikoa eta gardena izatea berma dezan.

5. Berma dezan ikastetxe pribatu-itunduek mekanismoak prestatzen dituztela langileek ikastetxeen funtzionamenduan parte hartzea ahalbidetzeko eta ziurtatzeko.

6. Begira dezan ikasleak ez daitezen sexuagatik banatuak izan.

7. Begira dezan ikastetxe pribatu-itunduetan ikasleen eskubide guztiak bermatzen direla.

8. Mekanismoak ezar ditzan, ikastetxe pribatu-itunduen funtzionamenduan familien parte-hartzea ahalbidetzeko.

9. Berma dezan langile guztien eskubideak errespetatzen direla, beti lan baldintza egoki eta duinak ziurtatuz.

10. Ziurta dezan ezen Hezkuntza Departamentuak, Ikuskaritza Zerbitzuaren bidez, ikastetxe pribatu-itunduen jarduera, eginkizun eta ildo pedagogiko egokia bermatzen duela.

11. Tresnak ezar ditzan, ziurtatze aldera dekalogo hau betetzen ez duten ikastetxe pribatu-itunduek arrazoizko epe bat izanzen dutela bertara

egokitzeko; bestela, hitzarmena bertan baliogabetu eginen da.

Hamabigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Beharrezkotzat jo dezan berrikuntza pedagogikorako eta hezkuntza alternatiborako Nafarroan diren mugimenduen proiektuak aitortzea eta balioestea; proiektu horiekin komunikazio iraunkorrerako bideak ezar ditzan, esperientzia horiek Foru Komunitateko hezkuntza hobetzeko egiten dituzten ekarpenak neurtzeko, eta balioan jar ditzan izaera inklusiboa duten hezkuntza-berrikuntzako ereduak, hezkuntza komunitate osoa inplikatuko dutenak. Horretarako, jardunbide egokitzat aitortuko ditu eta geroko une batean hezkuntza sisteman ezarriko ditu.

2. Eskola publikoan lehentasuna jardunaren osagai pedagogikoari eman diezaioten osagai administratiboaren aurretik, eta irakasleen prestakuntzako zentroetan lehentasuna eman diezaioten zeharkako prestakuntza garatu eta eskaintzeari, honako etapa eta arlo hauetan: Ikasgelaren kudeaketa eta aniztasuna. Berdintasuna eta hezkidetzatza: hezkuntza-proiektuak, genero ikuspegitik. Balioetan hezteak. Hezkuntza emozionala. Adimen anitzak. Ikaskuntzako komunitateak. Bitartekaritza: gatazketan inplikatzeko eta haiek ebazteko estrategia guztiz interesgarria. Proiektuak, gaitasunak eta elkarlana.

3. Eraikitzen diren ikastetxe berriei dagokienez, berma dezan horiek ezgaitasuna duten ikasleei egokitutako eremuak direla, energetikoki jasangarriak, pareta gehiegirik gabeak, tamaina eta erabilerak ezberdinak hartu ahalko dituzten eremu dibertsifikatu eta malguekin, eta komunitateari irekiak, inguruko ehun sozialarendako topagune gisa, hezkuntza formaletik harago doana.

Hamahirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-mahai bat sor dezan, Nafarroan Hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politiko handi bat lortzeko xedez. Lan-mahai hori tresna eta lankidetzak bidea izanen da, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-eragile guztien partaidetza izateko (guraso-elkar-teak, irakasleak, sindikatuak, parlamentu-taldeak, hezkuntza-erakundeak...).

Hamalauugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egoki diren prozedurak taxutu ditzan, titulartasun publikoko ikastetxeetan elkarrekin bizi daitezen hizkuntza-eredu ezberdinak, eta orobat premiatzen du hezkuntza publikoaren eskaintza berrantola dezan bereizketa gertatu den ikastetxe guztietan.

Hamabosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Ingelesezkako Programari dagokionez, 2016-2017 ikasturterako Hezkuntza Departamentuak ezarritako moratoria bertan behera utz dezan eta berriro ezar dezan programa 2017-2018 ikasturterako.

Hamaseigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurri egoikiak har ditzan landa-eremuko eskolak hezkuntza-erakunde gisa mantentzeko, beren antolamenduegitura heterogeneo eta bereziarekin, bai eta beharrezkoak diren baliabideak libera ditzan eskola horiek eratzten dituzten eskola-unitateen sarea mantentzeko eta ezartzeko.

Hamazazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du Nafarroako irakaskuntza publikoa sustatu, lehenetsi eta garatzea, halako moldez non Nafarroako hezkuntza eskaintza egituratuko duen, eta irakaskuntza zein ikastetxe eredu bat sustatuko duen, inklusiboa, sozializatzailea,

laikoa, ez-sexista, demokratikoa, parte-hartzailea, eleaniztuna, ingurune fisiko-sozialean txertatua, desberdintasunen berdintzailea eta guztien eskola arrakasta bermatzeko behar diren baliabide guztiez hornitua.

Hemezortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du bete egin ditzan parlamentu honek aho batez onetsi dituen erabakiak, zeinetan premiatzen baita 2015-2016 ikasturtean zehar jardunean dauden eskola unitateak 2016-2017 ikasturtean mantentzera, Iruñeko Ermitagaña HLHIPan, Tuterako Monte San Julián HLHIPan eta Pitillasko HLHIPan”

Argitara dadin agintzen da, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikulua xedatutako betez.

Iruñean, 2016ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da klima-aldaketak herrialde txirotueta emakumeengan daukan eragin handiagoa aitortu dezan eta nazioarteko erakunde eskudunetan horri begira lan egin dezan.

HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak, 2016ko maiatzaren 31n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da klima-aldaketak herrialde txirotueta emakumeengan daukan eragin handiagoa aitortu dezan eta nazioarteko erakunde eskudunetan horri begira lan egin dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du:

1. Klima-aldaketak herrialde txirotueta emakumeengan daukan eragin handiagoa aitortu dezan eta nazioarteko erakunde eskudunetan horri begira lan egin dezan.

2. Genero-ikuspegia gehitu dezan egokitze-eta arintze-ekintzetan, eta Parisko 2015eko abenduko Erabakiek ezarritako funtsari ekarpena egin diezaion, klima-aldaketaren ondorioei aurre egiten eta horiei lotutako giza, ingurumen eta ekonomia kostuak saihesten laguntzen duten ekintzak finantzatze aldera.

3. EBN susta dezan “ingurumenagatiko errefuxiatu” kontzeptua jasotzea Europako migrazio eta asilo legedian, eta, halaber, Espainiako legedian.

4. Konpromisoa har dezan emakume gehiago egon daitezen klimari buruzko negoziazioetan eta klima-aldaketari lotutako nazioarteko erakundeetan dauden Espainiako eta Europako ordezkariak eta delegazioetan”.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikoko ikasleak Padre Moret BHlan matrikulatzea erraztu dezan, ikasle horiek Bigarren Hezkuntza British programa elebidunaren barnean jasotze aldera.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2016ko ekainaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikoko ikasleak Padre Moret BHlan matrikulatzea erraztu dezan, ikasle horiek Bigarren Hezkuntza British programa elebidunaren barnean jasotze aldera.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikoko ikasleak 2016-2017 ikasturterako Padre Moret BHlan matrikulatzea erraztu dezan, ikasle horiek askatasunez hautatu zuten British programa elebidunaren barnean jasotze aldera irakaskuntza.”

Iruñean, 2016ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da erraztu dezan Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikotik datozen ikasleen matrikulatzea Padre Moret-Irubide Institutuko British programan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2016ko ekainaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da erraztu dezan Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikotik datozen ikasleen matrikulatzea Padre Moret-Irubide Institutuko British programan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du erraztu dezan Doña Mayor

de Navarra ikastetxe publikotik datozen ikasleen matrikulatzea, Hezkuntza Departamentuari 2015eko abenduaren 18an aurkeztutako eskabidearen bidez baimena eskatu baitzuten Padre Moret-Irubide institutuko British programan matrikulatzeko eta haien hezkuntza elebidunari (ingelesa-gaztelania) jarraipena eman ahal izateko, eta, hala ere, ikastetxe horretako DBHko 1. mailarako ikaspostuen itxaron-zerrendan jarraitzen baitute.”

Iruñean, 2016ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko espezialitateetako autoderibazioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ospitaleguneko espezialitateetako autoderibazioei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00173), informazioa nahi baitu Nafarroako Ospitaleguneko espezialitateetako autoderibazioei buruz. Hauxe da Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

NAFARROAKO OSPITALEGUNEA

2006ko ots.	Kodea	Espezialitatea	Autoderibazioak
	10	OFTALMOLOGIA	610
	10	HAURREN OFTALMOLOGIA	27
	11	ORL	424
			1.061

2016ko mar.	Kodea	Espezialitatea	Autoderibazioak
	1	GERIATRIA	10
	3	PNEUMOLOGIA	28
	4	NEUROLOGIA	29
	5	DERMATOLOGIA	59
	6	KARDIOLOGIA	140
	7	NEFROLOGIA	4
	8	BARNE MEDIKUNTZA	26
	13	KIRURGIA OROKORRA	77
	15	UROLOGIA	20
	17	HEMATOLOGIA	17
	19	DIGESTIO-APARATUA	259
	21	ERRADIOTERAPIA	2
	22	ZAHARBERRITZEA	39
	25	NEUROKIRURGIA	2

28	ENDOKRINOLOGIA	8
29	MINAREN UNITATEA	6
31	PEDIATRIA	63
32	OBSTETRIZIA	5
33	GINECOLOGIA ETA OBSTETRIZIA	21
36	PSIQUIATRIA	7
42	AURPEGI-MASAIETAKO KIR.	6
45	KIR. PLASTIKOA	5
46	KIR. PEDIATRIKOA	3
so	ONKOLOGIA MEDIKOA	5
51	ERREUMATOLOGIA	3
56	NUTRIZIOA ETA DIETETIKA	6
57	GENETIKA	33
80	ALERGOLOGIA	12
85	KIR. TORAZIKOA	1
86	HODIETAKO KIR.	14
		910

2016ko api.	Kodea	Espezialitatea	Autoderibazioak
	14	TRAUMATOLOGIA ETA ORTOPEDIA	1.529
	73	ELZ	442
			1.971

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean 2016ko maiatzaren 3an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, Hezkuntza Departamentuak Iruñeko Cardenal Ilundáin Ikastetxe Publikoko ikasleei Ingelesez Ikasteko Programako ebaluazio-probak egiteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuak Iruñeko Cardenal Ilundáin Ikastetxe Publikoko ikasleei Ingelesez

Ikasteko Programako ebaluazio-probak egiteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

UPN parlamentu-taldeak 9-16-PES-00174 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren eta Bizikidetzaren Zerbitzua da PAI/British programen ebaluazioak garatzeko eta ezartzeko ardura duena.

Probak egiten ari den lantaldea adituek osatuta dago. Aditu horiek Hezkuntza Departamentuaren barruan eta jarraipen batzordearen barruan ari dira lanean. Jarraipen batzorde hori Ebaluazio Atalari aholkua emateko kontsulta- eta kontrol-organo gisa izendatuta dago. Lehenengoei dagokienez, Ingelesaren eta Atzerriko Beste Hizkuntza Batzuen Ataleko kideak, probak prestatzen eta aplikatzen laguntzen ari direnak, PAI/British programak dituzten ikastetxeetako irakasleak dira guztiak, programa horietan eta irakasleen prestakuntzan eskarmentu handia dutenak. Ebaluazio ataleko kideak Matematikako irakasleak eta Estatistikako adituak dira, horiek ere PAI/British

programak dituzten ikastetxeetan eskarmentua dutenak.

Barneko lantaldearen osagarri gisa, bost irakasle kontratatu dira, aplikazio- eta ebaluazio-lanetan dihardutenak. Guztiek daukate departamentuak ingelesko adituen lanpostuetarako eskatzen duen titulazioa, eta gutxienez ere ingelesko C1 maila. Guztiek ere ebaluazio-prozesua prestatzeko estandarizatzeko fasea gainditu dute.

Jarraipen batzordeari dagokionez, profil mistoa du: alde batetik NUPeko, UNEDeko eta Nafarroako Unibertsitateko adituak ditu —guztiak ere izen aitortua dutenak eta Foru Komunitatean curriculum zabala dutenak— eta, bestetik, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako irakasleak, PAI/British programak dituzten ikastetxeetan esperientzia dutenak, hizkuntza eredu desberdinetakoak eta hizkuntzetan eta haien irakaskuntzan adituak.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 12an.

Hezkuntzako Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Hezkuntza Departamentuak Iruñeko Cardenal Ilundáin Ikastetxe Publikoko ikasleei Ingelesez Ikasteko Programako ebaluazio-probak egiteko moduari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuak Iruñeko Cardenal Ilundáin Ikastetxe Publikoko ikasleei Ingelesez Ikasteko Programako ebaluazio-probak egiteko moduari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

UPN parlamentu-taldeak 9-16-PES-00175 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren eta Bizikidetzaren Zerbitzua da PAI/British programen ebaluazioak garatzeko eta ezartzeko ardura duena. Proba hauek egiteko modua 11 edo 12 urteko ikasleentzat egokiena da. Izan ere, aurreko ikasturteetan PAI/British programak ebaluatzen egitura bera zuten probetan erabilitako bera da, alde bakarrarekin: aurreko ikasturteetan probak egin eta administratzeko modu hau lehen hezkuntzako 2. eta 3. mailako ikasleei aplikatu zitzairen; hau da, 7, 8 edo 9 urteko ikasleei.

Aipatutako aurreko ebaluazio horiek Hizkuntzen Zerbitzuko teknikariek kudeatu zituzten, oraingoak bezalaxe, eta teknikari horiek oso modu positiboan neurtu eta baloratu zuten ikasleen (7, 8 edo 9 urtekoak) erantzuna.

Orduan, ebaluatzen modua egokia izan zen, oraingoan urte gehiago dituzten ikasleekin egokia izan den bezala.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 12an.

Galdera, Hezkuntza Departamentuak Iruñeko Cardenal Ilundáin Ikastetxe Publikoko ikasleei Ingelesez Ikasteko Programako ebaluazio-probak egin direnean bertan egon diren pertsona helduei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuak Iruñeko Cardenal Ilundáin Ikastetxe Publikoko ikasleei Ingelesez Ikasteko Programako ebaluazio-probak egin direnean bertan egon diren pertsona helduei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

UPN parlamentu-taldeak 9-16-PES-00176 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Probak aplikatzen ari den lantaldea adituek osatuta dago, eta aditu horiek Hezkuntza Departamentuaren barruan ari dira lanean. Ingelesaren eta Atzerriko Beste Hizkuntza Batzuen Ataleko kideak, probak prestatzen eta aplikatzen laguntzen ari direnak, guztiak ere PAI/British programak

dituzten ikastetxeetako irakasleak dira, programa horietan eta irakasleen prestakuntzan eskarmentu handia dutenak. Ebaluazio ataleko kideak Matematikako irakasleak eta Estatistikako adituak dira, horiek ere PAI/British programak dituzten ikastetxeetan eskarmentua dutenak.

Barneko lantaldearen osagarri gisa, bost irakasle kontratatu dira, aplikazio- eta ebaluazio-lanetan dihardutenak. Guztiak daukate departamentuak ingeleseko adituen lanpostuetarako eskatzen duen titulazioa, eta gutxienez ere ingeleseko C1 maila.

Cardenal Ilundáin Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoaren kasu zehatzean, probak aplikatzeaz arduratu diren teknikariak ikastetxe bereko irakasleak eta zuzendaritza-kargudunak izan dira orain dela bi ikasturtera arte, eta ebaluatutako ikasleek beraien irakasleak. Teknikari horiek eta ikastetxeko egungo zuzendaritza taldeak gero baloratu zuten bezala, ebaluazioa inongo gorabeherarik gabe egin zen.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 12an.

Hezkuntzako Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Defentsa Ministerioak sustatutako 'Carta a un militar español' literatur lehiaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Defentsa Ministerioak sustatutako 'Carta a un militar español' literatur lehiaketari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztutako 9-16/PES-00177 galderari dagokionez, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

2015/16 ikasturtean Hezkuntza Departamentuak ez du jarduera hori inolaz ere sustatu. Aurreko ikasturteetan literatur lehiaketa horri buruzko informazioa Departamentuaren webguneko albistearen bitartez zabaltzen zen, baina ikasturte honetan ez da halakorik egin.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 12an.

Hezkuntzako Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren baitan sortutako Berdintasun Batzordearen lanari, helburu eta azterlanei, txostenei edo proposamenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren baitan sortutako Berdintasun Batzordearen lanari, helburu eta azterlanei, txostenei edo proposamenei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatzizko galdera egin du (9-16/PES-00178). Hauxe da horri buruz Berdintasun Batzorde bat eratu zen Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluak ematen dion informazioa:

Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren 2015eko martxoaren 6ko bileran, Batzorde Iraunkorrek proposatuta, erabaki zen Berdintasuneko Politiken Batzorde Espezializatua sortzea.

2015eko martxoaren 31n batzorde hori bildu eta eratu zen. Batzorde hori osatu zuten, Administrazioaren izenean, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuko zuzendari kudeatzaile Teresa Nagore Ferresek eta Genero Berdintasunaren Politiketako zuzendariorde M^a Jesús Gutiérrez Álvarezek. Nafarroako Enpresarien Konfederazioaren izenean, berriz, Javier Iradiel Ibáñez eta Cristina Sotro Belzaren izan ziren batzordekideak; eta Nafarroako UGT eta CCOOren izenean, azkenik, emakume gaien arloko idazkariak: Maite Pérez Huarte eta M^a José Anaut Couso eta Pilar Arriaga Garcia eta Carmen Sesma Beruete.

Lehenengo bileran, batzordeak eskatuta, azaldu zen Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat onetsia zuela emakumeen aurkako indarkeriaren aurka jarduteko eta proiektu hori Parlamen-

tuan izapidetuko zela gero. Legea lantzeko aurrera eraman den prozesuaren berri eman zen, eta azaldu zen zein diren legearen berritasunak, nolakoa izan den bai diagnostikoa bai legea bera lantzeko partaidetzazko prozesua, eta zien izan diren legea Parlamentuko Osoko Bilkurak martxoaren 26an onetsi arte aurrera eraman diren izapideak.

Maiatzaren 15ean bigarren bilera izan zen. Hartan proposatu zen Berdintasun Planen erregistroarekin harremana izanda lan egin beharra zegoela.

Batzordean genero berdintasunaren arloko negoziazioari eta ituntzeari buruzko alderdiak landuko dira, eta helburua izenen da proposamenak egitea lan arloko gaiei buruz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiten jarraitzeko eta genero-arrazoiengatik bazterketak desagerrarazteko.

Batzordea eratu zenetik iragan diren hilabeteetan, ez da inongo txosten edo azterlanik egin. Jada aipatu den bezala, batzordearen adostasunezko estu bat idazten lan egin da, honako gai hauei buruz:

- Berdintasun plana egiteko legezko betebeharrak duen Nafarroako enpresak identifikatzea.

- Berdintasun plana ezartzeko betebeharrak dagoen kolektibo sektorialen hitzarmenak identifikatzea.

- Langile kopurua edo hitzarmena direla-eta Berdintasun Plana idazteko eginbeharrak daukaten enpresei informatzea plan hori erregistratu egin behar dutela.

- Legezko edo hitzarmen sektorialen ondoriozko eginbeharrak ez dagoen enpresetan berdintasun planak borondatez ezar daitezkeen sentsibilizazio-eta sustapen-lana egitea.

Akordio hori ez du onetsi Batzordeak; hori dela eta, ez dago igortzeko agiririk, zeren eta ez 2015eko maiatzaren 15etik ez baita bilerarik egin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 13an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

Galdera, Reina Sofía Ospitaleko larrialdi zerbitzuan 2016ko apirilaren 18an gaixoei emandako zerbitzuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Reina Sofía Ospitaleko larrialdi zerbitzuan 2016ko apirilaren 18an gaixoei emandako zerbitzuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 29ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00179), informazioa nahi baitu Tuterako Reina Sofía Ospitalearen gaineko zenbait gairi buruz. Hauxe da Nafarroako Gobernu Osasune-

ko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

1.- Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuan zergatik luzatu zen itxaronaldia, kalteuek diotenaren arabera, apirilaren 18an?

Joan den apirilaren 18an ez zen inolako atzerapen berezirik gertatu Reina Sofía Ospitaleko Larrialdi Zerbitzura joan ziren gaixoen arretan. Zehaztu beharra dago kontu bat dela larrialdiko arreta eta beste bat ospitaleratu behar diren gaixok dagokien gelara eramatea.

Apirilaren 18an, 08:00etatik 15:00etara 67 pertsonari eman zitzaizkien arreta. Urteko beste astelehen batzuetan izaten den arreta-kopuruaren antzekoa da hori.

2.- Zergatik itxaron behar izan zuten korridoretan, kaltetuek diotenaren arabera, ospitaleratu arte?

Ospitaleratzeetan okupazio-goraldiak izaten dira aurreikusi gabeko urteko egun jakin batzuetan, zeinetan ohe guztiak okupatuta baitaude eta senda-agiriak eman eta gelak egokitu arte itxaron behar baita ospitaleratze berriak egiteko.

Nolanahi ere, itxaronaldiak Larrialdi Zerbitzuan bertan izaten dira, zerbitzu horretako profesionalen zaintzapean.

3.- Egia al da, kaltetuek diotenaren arabera, arrazoia izan zela ospitaleratu beharreko solairuetan ez zegoela oherik libre? Ezezkoan, zer arrazoi egon zen ospitaleratzea al bait lasterren ez egiteko?

Baldin eta egiturazko gabezia balitz, egoera hori maiztasun handiagoz errepikatuko litzateke eta ohikoa izanen litzateke gaixoak beste zentro batzuetara eramatea ohe-faltarengatik. Halako egoerarik ez da gertatu azken urte hauetan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, “Panamako paperei” buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Panamako paperei” buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 29ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00181) “Panamako paperei” buruz. Galdera hori 2016ko apirilaren 21eko 1694 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuak Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

- Lehenengo galdera: Jaso al da jada Zerga Administrazioeko Estatu Agentziaren informaziorik “Panamako paperak” izenekoetan jasotako dokumentuen artean ageri den inolako pertsona fisiko edo juridikori buruz?

Erantzuna ezezkoa da. Nafarroako Zerga Ogasunak modu ofizialean jo du AEATera, “Confidencial”-Titania Compañía Editorialera eta “Sexta”-Atresmedia Corporación de Medios de Comunicación SArA, eta beraien esku duten eta zerga-eragina duen informazio guztia eskatu die

zergadun nafarrei buruz, Mossak Fonseca bulego-arekin eta “Panamako paperak” deitutakoekin zerikusia dutenak.

Gaur den egunean, ez dugu inolako informaziorik jaso.

- Bigarren galdera: Ogasun Departamentuak ba al du asmorik egoitza fiskala Nafarroan daukaten eta Panaman ondasunak eta errentak dauzkaitela jada adierazi duten pertsonen ondasunei eta errentei buruzko aitortpenak erkatzeko eta ikeritzeko, aitortpenen egiazkotasuna eta ondasun nahiz errenten jatorria egiaztatze aldera?

Erantzuna baiezkoa da. Horri dagokionez, zehaztu beharra dago hemendik gutxira Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den Zergen Kontrolerako Planean honako hau aipatzen dela:

“2.7. Atzerriko ondarea eta errentak ikertzeko jarduketak areagotuko dira, Nafarroako Zerga Ogasunak eskura dituen informazio iturrien sistematizazioaren eta azterketaren bidez, besteak beste:

a. Europar Batasuneko beste estatu batzuetan edo informazio trukea duten bestelako herri eta lurraldeetan lortutako halako errenta batzuen urteroko aitortpenean dagoen informazioa.

b. Zerga Administrazioeko Estatu Agentziak Nafarroan bizi diren pertsona fisikoek ELGAko herrietatik datozkien pentsioen gainean igorritako informazioa.

c. Zerga Administrazioiko Estatu Agentziarekin elkarlana eta koordinazioa, ahalik eta eperik motzenez eskuragarri izateko Estatuak lortutako beste edozein informazio, dela berez dela beste jurisdikzio batzuekin trukerako sinaturiko akordio era hitzarmenen esparruan.

d. Nafarroako Zerga Ogasunaren eskura dagoen informazioa, jatorria edo helmuga atzerrian duten finantza fluxuen gainean.

e. "Atzerrian dauden ondasun eta eskubideei buruzko aitorten informatiboa" izeneko 720 ereduaz 2012ko ekitaldietan eta ondokoetan egindako aitorteneko informazioa, zertarako eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen jatorria nahiz horiek sorrarazten dituzten errenten zerga ordainketa zuzena egiaztatzeko.

f. Ondarearen gaineko zergaren aitortenak eta tributudunaren zerga edo ondare egoeraren berri ematen duten bestelako informazioak.

Informazio hauek guztiak aztertuz eta gurutzatuz, eta Zerga Agentziarekin alor honetako etengabeko informazioa trukatzu bilatzen diren iturri berrien bidez, Nafarroako Zerga Ogasunak egiaztatuko du tributudunek atzerrian dituzten ondasun eta eskubideen aitortena zuzen egin ote duten, eta ikerketa abiatuko du zantzuak daudelarik zerbait guztiz edo partez ezkutatu ote den. Araurik bete ez bada, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren 18. xedapen gehigarrian aurreikusten den zehapen araubidea aplikatuko da, eta aitortu gabeko ondasun eta eskubideak erregularizatuko dira justifikatu gabeko ondare-gehikuntza gisa, Sozietateen gaineko zergari buruzko eta Pertsona fisikoen gaineko errentaren zergari buruzko foru legeetan aurreikusitako kasuetan."

-Hirugarren galdera: Baldin eta, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak edo beste erakunderen batek igorrita nahiz Ogasun Departamentuak berak egindako ikerketaren baten bidez, egoitza fiskala Nafarroan daukaten pertsonen buruzko informaziorik lortzen bada, "Panamako paperak" izenekoekin lotura duenik, ba al du Ogasun Departamentuak asmorik paper horiekin zerikusia duten pertsonen zerrenda jendaurrean paratzeko?

Galdera horren erantzuna oinarritu beharra dago Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 105. artikuluan. Beste batzuetan informatu dugun bezala, Nafarroako Foru Komunitateko Zerga Administrazioak datuak lagatzeari buruzko gaia Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko aipatutako 105.1 artikuluan araututa dago: "Bere eginkizunen barnean zerga administrazioak lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira, eta aginduz kudeatu behar dituen tributuek edo baliabideak benetan aplikatzeko erabiliko dira bakarrik. Ezin izanen zaizkie hirugarrenei laga edo komunikatu". Egia da isilpeko datuen izaera horrek, bai eta horrekin lotuta dagoen lagapenerako debekuak ere, salbuespen batzuk edo legezko gaikuntza batzuk badituztela, zeinetan lagapena edo komunikazioa baimentzen baita.

Horrenbestez, Nafarroako Zerga Ogasunak datuak emanen ditu soilik aipatutako 105. artikuluan baimendutako edo gaitutako kasuetan.

Hori ezertan ere kendu gabe, litekeena hedabideek beren esku duten informazio guztia publiko egitea. Ildo horretatik, El Confidencial-ek argitaratu zuen Nafarroako Zerga Ogasunaren errekerimendua jaso zuela, eta honakoa adierazi zuen:

"Ikerketa Kazetarien Nazioarteko Partzuergoak iragarritakoaren ildotik, "El Confidencial" eta "La Sexta" hedabideek ez diete datu-base osoa —11,5 milioi agirik osatua— emanen hura eskatu duten agintariei, baina haien esku jartzen ari dira beren interesa dela-eta argitaratu diren historiei buruzko dokumentuak. Maiatzaren 9tik aurrera, edozein pertsonak bilatu ahalko ditu Panamako paperetan ageri diren izenak eta 'offshore' sozietateak, Ikerketa Kazetarien Nazioarteko Partzuergoak sortutako tresna interaktibo batekin."

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria:
Mikel Aranburu Urtasun

Galdera, Tuterako Osasun Barrutian 2010etik 2015era egindako inbertsioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Luis Casado Oliver jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Osasun Barrutian 2010etik 2015era egindako inbertsioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 29ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Luis Casado Oliver jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-

16/PES-00182), jakin nahi baitu zein izan den Tuterako Osasun Barrutian 2010etik 2015era egindako inbertsioa. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Eskatutako informazioa dakarren agiria erantsi dugu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 19an.

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

Galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak zer arrazoi darabilen Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat LOMCEk ezartzen duen ebaluazioa ez egiteko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak zer arrazoi darabilen Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat LOMCEk ezartzen duen ebaluazioa ez egiteko. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 29ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

UPN parlamentu-taldeak 9-16-PES-00184 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza Departamentua ebaluazio diagnostikoak egiten ari zaizkie lehen hezkuntzako 6.

maila ikasten ari diren ikasle guztiei, ebaluazio-prozesua abian jarri zenean indarrean zeuden araudiari eta haren garapenei jarraituz, eta ahaleginak egin ditu teknikoki egin zitezkeen egokitzapenak egiteko egungo araudiari erantzute aldera. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu beharra dago araudi hori ebaluazio-prozesuko une desberdinetan argitaratu dela. Une horietako batzuetan, ebaluazio prozesua jada hasita eta denboran ongi aurreratua zegoela, lege-garapena beranduegi iritsi da, edo haren definizioa ez da behar adinakoa izan.

Baliozkotasun eta fidagarritasun bermeekin egiten den ebaluazio-prozesu orok zuzen gartzeko beharrezko eta ezinbesteko diren fase batzuk exijitzen ditu. Honakoak, besteak beste: konstruktuko teorikoak egitea; probetarako helburuak eta zehaztapenak diseinatzea; item eta egitekoen sortzaileen talde egokiak antolatzea; aurre-edizioa; pilotatzea eta aurre-testak; edizioa; plangintza eta

administrazioa; zuzentzaileak prestatzea; erantzunak zuzendu eta baloratzea; datuen analisia; parte-hartzaileei emaitzak eta haiek interpretatzeko modua jakinaraztea; eta proba berekien eta prozesu osoaren baliozkotasunari buruzko analisia egitea.

Fase horiek guztiak ebaluazio-denboren kontrol bat eskatzen dute. Normalean bi urtez (edo bi ikasturtez) luzatzen dira, abiatzen denetik hasi eta emaitzak jakinarazi eta baliozkotasuna analizatzen den arte.

2015/16 ikasturtean, LOMCEren arau-garapenak jasotzen joan gara, 2016ko maiatz-ekainetan aplikatzekoak diren ebaluazio-probei berei buruzkoak, halako moduz non horietako batzuk 2015eko azaroan argitaratu baitira (azaroaren 20ko 1058/2015 Errege Dekretua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako Lehen Hezkuntzako azken ebaluazioko ezauzgarri orokorrak arautzen dituena); beste batzuk, berriz, orain dela aste gutxi batzuk aldatu dira (Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta Unibertsitateetako Estatu Idazkaritzaren 2016ko martxoaren 30eko Ebazpena, Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluaziorako ikastetxeko testuinguruari eta adierazle komunei buruzko galdetegiak finkatzen dituena), eta, azkenik, probei buruzko alderdi batzuk oraindik ere zehaztu gabe daude.

Arazo horri gehitu behar zaio estandarizatze-maila nahikoa bermatuko duten eredu egokiak falta direla, eta berriki aldaketa gehiago gertatu egin direla. Horren adibidea da proben administrazioa eta zuzenketa kanpoan egitetik —PISAk erabili ohi duen ereduarekin egiten den bezala— barruan egitera iragan direla 2016eko apirilean, baita Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren kudeaketa-esparruko probetan ere (apirilaren 25eko ECD/594/2016 Agindua, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren kudeaketa-esparruan Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluazioa nola egin arautzen duena).

Hori guztia dela eta, ondoriozta dezakegu Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak izandako definizio ezak, berriki epeetan izan diren aldaketek eta arauen garapen eskasak teknikoki ezinezko egin dutela LOMCEn ezarritako ebaluazioak ezartzea; izan ere, ebaluazio horietarako epe batzuk eta aurrekontu-sailen aurreikuspen bat behar dira, eta behar den denborarekin planifikatu behar dira, baldin eta Nafarroan egiten diren ebaluazio-probetan behar adinakoa eta ohikoa izan den zorrotztasuna eskatzen jarraitu nahi badugu.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 20an

Hezkuntzako Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, atzerriko hizkuntzetan C1 maila daukaten irakasleentzako lanpostuetarako deialdia egin ahal izateko araudi-aldaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, atzerriko hizkuntzetan C1 maila daukaten irakasleentzako lanpostuetarako deialdia egin ahal izateko araudi-aldaketari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 29ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentualdeak 9-16/PES-00185 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza, Zientzia eta Kirol Ministerioan 2016ko apirilaren 18an izandako bileran zehar, jarduneko ministro Méndez de Vigo jaunak ez zion erantzun ez galdera horri, ez eta kontseilari honek egin zizkion gainerako galderei ere.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 20an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Lan-eskaintza Publikoko desorekak konpontzekoa den funtzionario erretiratuen ordezkate-tasa dela-eta Hezkuntzako kontseilariak egindako eskariari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lan-eskaintza Publikoko desorekak konpontzekoa den funtzionario erretiratuen ordezkate-tasa dela-eta Hezkuntzako kontseilariak egindako eskariari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 29ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeak 9-16/PES-00186 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza, Zientzia eta Kirol Ministerioan 2016ko apirilaren 18an izandako bileran zehar, jarduneko ministro Méndez de Vigo jaunak ez zion erantzun ez galdera horri, ez eta kontseilari honek egin zizkion gainerako galderari ere.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 20an.

Hezkuntzako Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Lanbide Heziketako erdi mailatik goi mailara igarotzea, titulazioa eta sarbidea, Batxilergoko 2. maila errepikatzea eta DBHko 4. mailako ibilbideak direla-eta Hezkuntzako kontseilariak Hezkuntzako ministroari egindako eskariari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lanbide Heziketako erdi mailatik goi mailara igarotzea, titulazioa eta sarbidea, Batxilergoko 2. maila errepikatzea eta DBHko 4. mailako ibilbideak direla-eta Hezkuntzako kontseilariak Hezkuntzako ministroari egindako eskariari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 29ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaltaldeak 9-16/PES-00187 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

2016ko apirilaren 18an Hezkuntza, Zientzia eta Kirol Ministerioan izandako bileran zehar, Nafarroako Gobernuko kontseilari Mendoza jaunak galderaren xede diren honako argibideak eskatu zituen:

- Lanbide heziketako erdi mailako gradutik goi mailako gradura sarbidea izateari dagokionez, honakoa izan zen galdera: Ministerioak noizko pentsatu du erdi mailako ziklotik goi mailako ziklorako sarbidea arautzea? Izan ere, ikasturtearen amaieran gaude, eta prestakuntza zikloetako aurre-inskripzioa abian da.

- Batxilergoko 2. maila errepikatzeari dagokionez, honako hau izan zen galdera: Batxilergoko 2. mailan egon eta ikasgairen bat gainditu gabe

duten ikasleek, ikasturtea errepikatu behar dutenik, Batxilergoko 2. mailako lehenengo urtean ikasi ez zuten ikasgairen bat ikasi beharko al dute aurten?

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ibilbideetan gauza jakina da DBHko 4. maila bi aukeraren arabera antolatzen ari dela: Batxilergoko hastapenarako irakaskuntza akademikoak eta Lanbide Heziketaren hastapenerako irakaskuntza aplikatuak. 17/18 ikasturtetik aurrera, ikasleek DBHko amaierako ebaluazioa gainditu beharko dute DBHko titulua lortzeko. Amaierako ebaluazio horren arabera (ikasketa akademikoan amaierako ebaluazioa edo ikasketa aplikatuen amaierako ebaluazioa izan daiteke, DBHko 4. mailan aukeratu dena gorabehera), ikaslea Batxilergoan (ikasketa akademikoan amaierako ebaluazioa) ala LHn (ikasketa aplikatuen amaierako ebaluazioa) sartu ahalko da. Ikasmila bakoitzeko bi deialdi egonen dira. Hala eta guztiz ere, 16/17 ikasturtearen amaieran, ikasleek deialdi bakarra izanen dute, DBHko amaierako ebaluaziorako, baina ez du eragin akademikorik izanen. Honako hau izan zen galdera: Ikasketa aplikatuen aukeratik DBHko 4. maila gainditu duten ikasleek azkenean Batxilergora joan nahi badute, horretarako modua izanen al dute?

Méndez de Vigo jaunak ez zien kontseilari honek egindako galdera horietatik bakarrari ere erantzun, baina konpromisoa hartu zuen maiatzaren 14ko Hezkuntzako Konferentzian haiek aztertzeko.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 20an.

Hezkuntzako Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, jakitekoa ea zer txosten tekniko eta juridikotan oinarrituta hartu duen Hezkuntza Departamentuak Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat LOMCEk ezartzen duen ebaluazioa ez egiteko erabakia.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa ea zer txosten tekniko eta juridikotan oinarrituta hartu duen Hezkuntza Departamentuak Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat LOMCEk ezartzen duen ebaluazioa ez egiteko erabakia. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 29ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

UPN parlamentu-taldeak 9-16-PES-00188 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Baliozkotasun eta fidagarritasun bermeekin egiten den ebaluazio-prozesu orok zuzen garatzeko beharrezko eta ezinbesteko diren fase batzuk exijitzen ditu. Honakoak, besteak beste: konstruktuko teorikoak egitea; probetarako helburuak eta zehaztapenak diseinatzea; item eta egitekoen sortzaileen talde egokiak antolatzea; aurre-edizioa; pilotatzea eta aurre-testak; edizioa; plangintza eta administrazioa; zuzentzaileak prestatzea; erantzunak zuzendu eta baloratzea; datuen analisia; parte-hartzaileei emaitzak eta haien interpretatzeko modua jakinaraztea; eta proba berekien eta prozesu osoaren baliozkotasunari buruzko analisia egitea.

Fase horiek guztiak ebaluazio-denboren kontrol bat eskatzen dute. Normalean bi urtez (edo bi ikasturtez) luzatzen dira, abiatzen denetik hasi eta emaitzak jakinarazi eta baliozkotasuna analizatzen den arte.

2015/16 ikasturtean, LOMCEren arau-garapena jasotzen joan gara, 2016ko maiatz-ekainetan aplikatzekoak diren ebaluazio-probei berei buruz-

koak, halako moduz non horietako batzuk 2015eko azaroan argitaratu baitira (azaroaren 20ko 1058/2015 Errege Dekretua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako Lehen Hezkuntzako azken ebaluazioko ezaugarri orokorrak arautzen dituena); beste batzuk, berriz, orain dela aste gutxi batzuk aldatu dira (Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta Unibertsitateetako Estatu Idazkaritzaren 2016ko martxoaren 30eko Ebazpena, Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluaziorako ikastetxeko testuinguruari eta adierazle komunei buruzko galdetegiak finkatzen dituena), eta, azkenik, probei buruzko alderdi batzuk oraindik ere zehaztu gabe daude.

Arazo horri gehitu behar zaio estandarizatzemaila nahikoa bermatuko duten eredu egokiak falta direla, eta berriki aldaketa gehiago gertatu egin direla. Horren adibidea da proben administrazioa eta zuzenketa kanpoan egiteak —PISAk erabili ohi duen ereduarekin egiten den bezala— barruan egitera iragan direla 2016ko apirilean, baita Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren kudeaketa-esparruko probetan ere (apirilaren 25eko ECD/594/2016 Agindua, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren kudeaketa-esparruan Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluazioa nola egin arautzen duena).

Hori guztia dela eta, ondoriozta dezakegu Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak izandako definizio ezak, berriki epeetan izan diren aldaketek eta arauen garapen eskasak teknikoki ezinezko egin dutela LOMCEn ezarritako ebaluazioak ezartzea; izan ere, ebaluazio horietarako epe batzuk eta aurrekontu-sailen aurreikuspen bat behar dira, eta behar den denborarekin planifikatu behar dira, baldin eta Nafarroan egiten diren ebaluazio-probetan behar adinakoa eta ohikoa izan den zorrotasuna eskatzen jarraitu nahi badugu.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 19an.

Hezkuntzako Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Nafarroako Ingelesez Ikasteko Programaren diagnostikorako azterlan soziologikoaren kostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ingelesez Ikasteko Programaren diagnostikorako azterlan soziologikoaren kostuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 6ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

UPN parlamentu-taldeak 9-16-PES-00192 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Azterlan soziologikoa zerean datza, Ingelesez Ikasteko Programaren ezarpenari eta funtzionamenduari buruzko azterlan kualitatibo eta kuantitatibo bat egitean, programak ukitutakoen iritziz. Programan ukitutako eragileen jarrera, arazoibideak eta iritzia ezagutu eta ebaluatzeko, zuzendarien, irakasleen, gurasoen eta departamentuko teknikarien arteko eztabaida-taldeak antolatu dira. Halaber, inkestak egin zaizkie zuzendariei eta elkarrizketak, berriz, ikuskatzaileei. Txostenak bi zati desberdin dauzka. Lehenengoa Ingelesez Ikasteko Programa edo British Programa duten ikastetxeetako zuzendarien taldeari dagokio; bigarrena, berriz, gainerako kolektiboak.

Honako hau da azterlanaren egitura:

Lehenengo zatia:

- PAI edo British programak dauzkaten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendariei bi eztabaida-talde.

- PAI edo British programak dauzkaten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendariei egindako inkesta.

Bigarren atala:

- PAI programarik ez duten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendari guztiei egindako inkesta.

- Irakasleen 4 eztabaida-talde.

- Gurasoen 6 eztabaida-talde.

- Ikuskatzaileei egindako elkarrizketak.

- Ingelesaren eta Atzerriko beste hizkuntzen Ataleko teknikarien eztabaida-talde bat.

Ondoren xehakaturik ematen dugu DIS-PAI Ingelesez Ikasteko Programaren azterlan soziologikoak ekarri duen kostua.

Irakasleen 4 eztabaida-talde; zuzendarien 2 eztabaida-talde; gurasoen 6 eztabaida-talde; teknikarien eztabaida-talde bat; ikuskatzaileei egindako 4 inkesta, eta PAI ez duten ikastetxeetako zuzendariei egindako inkesta bat: 25.999,00 euro.

PAI edo British duten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendariei egindako ebaluazio inkesta bat: 3.700,00 euro.

GUZTIRA 29.699,00 euro.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 20an.

Hezkuntzako Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, atzerriko hizkuntzako hamabi ordu baino gehiago ematen dituzten Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, atzerriko hizkuntzako hamabi ordu baino gehiago ematen dituzten Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 6ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

UPN parlamentu-taldeak 9-16-PES-00194 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza Batzordean apirilaren 26an aurkeztutako araudia honako hau da: apirilaren 19ko 118/2016 Ebazpena, non Bigarren Hezkuntzako hizkuntza anitzeko programa emateko oinarriak onesten diren 2016-17 ikasturterako, Zizur BHIan eta Iñaki Ochoa de Olza DBHIan, bi ikastetxe horietan hartzen baitituzte Catalina de Foix HLHIP, Camino de Santiago HLHIP eta Doña Mayor HLHIP ikastetxeetan PAI programan parte hartzen duten ikasleak. Ikasle horiekin bigarren hezkuntzan egin beharrekoari buruz Departamentuan

zegoen aurreikuspen falta zela eta, Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak datorren ikasturterako arautu du programa horrekin jarraitzea, ingelesez irakatsiko diren ikasgaiak eta saioak doitzuz.

Lehenengo galderari dagokionez, esan beharra daukagu une hauetan Nafarroan ez dagoela inongo ikastetxerik PAI programako ikasleak hartu dituenik. Horrenbestez, ingelesezko eskaintza handiena duten ikastetxeak British programakoak dira, zeinek inongo loturarik ez baitute Bigarren Hezkuntzako hizkuntza anitzeko programari buruzko ebazpenean jasotakoekin.

Bigarren galderari dagokionez, aurreko erantzunetik ondorioztatzen denez, tarte horiek ez dituzte inolaz ere ukituko PAI programako ikasleei jarraitutasuna emateko ebazpenean proposatzen direnez beste programa batzuetan dauden ikastetxeak.

Bigarren Hezkuntzako hizkuntza anitzeko programa berriaren ezarpenaren jarraipen berezia egingen du Departamentuak 2016-17 ikasturtean, datozen urteetan lor dadin PAI programako ikasleek Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako iragate masiboa egokia izatea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 20an.

Hezkuntzako Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, hizkuntza- eta zientzia-gaitasunak direla-eta Hezkuntza Departamentuak egingen dituen proba diagnostikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, hizkuntza- eta zientzia-gaitasunak direla-eta Hezkuntza Departamentuak egingen dituen proba diagnostikoei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 29ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

UPN parlamentu-taldeak 9-16-PES-00183 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

ECD-PAI azterlana datuak aztertzeke fasean dago oraindik. Honako hau da proba horien egitura: aurrena, British edo PAI programetan ikasten ari diren lehen hezkuntzako 6. mailako ikasle guztien ingelesezko hizkuntza gaitasunaren berriazko ebaluazio diagnostikoaren azterlanaren lehe-

nengo fasea egingen da, bai eta zientzia-gaitasunaren jarraipena ere. Helburua da ikasleek programa horietan lortutako ingeles mailari buruzko lehenengo neurketa bat egitea eta zientzia-gaitasunaren garapen graduaren jarraipena egitea. Azterlan horretan, British edo PAI programak dituzten ikastetxeek gainera, kontrol-ikastetxeen lagin batek ere hartuko du. Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren eta Bizikidetzaren Zerbitzua da orain arte aipatutako ebaluazioaren hiru zatiak garatu, aplikatu, zuzendu, analizatu eta emaitzen zabalpena egiteko ardura duena.

Bestalde, zentsuaren bidez, matematika-gaitasunaren eta gaztelaniazko, euskarazko eta ingelesezko gaitasunaren ebaluazio diagnostiko bat egingen da, prestakuntza-izaerarekin eta ikastetxeetan egiten diren ebaluazio berekien osagarri. Ikuskarpen Zerbitzua da ebaluazio diagnostiko hori garatu, aplikatu, zuzendu, analizatu eta emaitzen zabalpena egiteko ardura duena.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Gaitasunak	Aplikagailua	Aplikazio mota	Ikastetxeak	Aplikazio aldia
Zientifikoa	Kanpoko	Laginak	Lehen hezkuntzako 6. Mailan PAI/British programak dituzten ikastetxeak eta kontrol taldeak	Apirilaren 14tik maiatzaren 6ra
Hizkuntza: Ingelesa, adaptazio proba	Kanpoko	Laginak	Lehen hezkuntzako 6. Mailan PAI/British programak dituzten ikastetxeak eta kontrol taldeak	Apirilaren 14tik maiatzaren 6ra
Zientifikoa *	Barnekoa	Ikastetxeak erabakita	Ikastetxeak erabakita	Ikastetxeak erabakita
Matematika	Barnekoa	Errola	Ikastetxe guztiak	Maiatzaren amaiera
Hizkuntza: Gaztelania	Barnekoa	Errola	Ikastetxe guztiak	Maiatzaren amaiera
Hizkuntza: Euskal hizkuntza	Barnekoa	Errola	D ereduko ikastetxeak	Maiatzaren amaiera
Hizkuntza: Ingelesa, proba orokorra	Barnekoa	Errola	Ikastetxe guztiak, salbu eta pai/british programa duten ikastetxeak eta kontrol taldeak	Maiatzaren amaiera

* Proba hau ikastetxeen eskura egonen da Departamentuaren webgunean, eta egoki irizitakoan erabiliko da, bai ere aplikazioari buruzko erabakiari dagokionez, bai datei eta aplikatzeko moduari dagokionez.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikari lanpostu bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzekoa.

Izangai onartuen behin betiko zerrenda

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikari lanpostu bat oposizio bidez txanda irekian betetzeko deialdiak, zeina 2016ko apirilaren 1eko 62. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen, 5. oinarrian xedatuari jarraituz, ERABAKI DUT:

1. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onestea. Hona:

Onartuak:

Izen-abizenak	Ezgaitasuna = > % 33	Egokitzea eskatzen du
Adrián Lezano, Javier		
Aguado Orta, Ignacio		
Aguayo Benito, María José		
Aguirre Hervas, María José		
Aisa Martinez, Irati		
Albistur Goñi, Aranzazu		
Almazor Iribarren, María Teresa		
Altuna Pascual, Iosu		
Alvarez De Eulate Pagola, Inés		
Amondarain Bargada, Maider		
Ansuátegui Garde, Estibaliz		
Antoñana Garralda, David		
Arazo Iglesias, Sara		
Arbella Murillo, Roberto		
Ardanaz Asiain, María Gema		
Arguis Sanz, Marta		
Arizcun Gonzalez, Lorena		
Armendariz Recalde, Araceli		
Artola Senar, Garazi		
Asurmendi Salvide, Miguel		
Ayechu Redín, Helena		
Ayensa Saldias, Edurne		

Izen-abizenak	Ezgaitasuna = > % 33	Egokitzea eskatzen du
Ayesta Zardoya, Edurne		
Azcarate Auzqui, Beatriz		
Aznarez Alvarez, Miguel Valeriano		
Baigorri Vázquez, Francisco Javier		
Barberena Jimenez, Ana Isabel		
Beorlegui Iragui, Raquel		
Bernardi Pina, Elaine		
Binaburo Gómez, Sandra		
Blanco Lozano, Bernardino		
Cabello Lecea, Jorge		
Castejón Munarriz, Silvia		
Castro Hinojosa, María Blanca		
Catalán Alcocer, María Cristina		
Catalan Equisoain, Noemi		
Cebrian Martín, Jon Koldo		
Chocarro Goñi, Francisco Javier		
Cuello Otero, Paulina María		
De La Fuente Sampedro, Beatriz		
De Vicente Olmedo, Maite		
Diaz Fernández, Ana Isabel		
Dominguez Berges, María Rosa		
Dominguez Goicoechea, Mikel		
Donazar Andres, Jesús Victor		
Echapare Ursua, Estibaliz		
Echarte Zambrano, Maite		
Echauri Arana, José Javier		
Echeverría Martínez, María		
Egea Huarte, Leyre		
Egozcue Recalde, Olga		
Elizondo Leiva, Montserrat		
Erce Iturgaiz, María		

Izen-abizenak	Ezgaitasuna = > % 33	Egokitzea eskatzten du	Izen-abizenak	Ezgaitasuna = > % 33	Egokitzea eskatzten du
Erro Armendariz, Ion Iñaki			Irureta Nemours, Angel María		
Erviti Ilundáin, Marcos			Iturri Villanueva, Beatriz		
Fernandez Urtasun, Belén			Iturria Ayerra, María Nieves		
Fuentes Urriza, Gonzalo			Izco Cabezón, María Carmen		
Furlan Garate, Nadia			Jaso Echeverría, Miren		
Gainza Ordoqui, Jose María			Jiménez Pellejero, María Esther		
Galbete Zabala, María Cristina			Juanicotena Obregozo, Amaia		
Galech Barricat, Laura			Lainez Insausti, Úrsula		
Garate Esain, Begoña			Landivar Roque, Irantzu		
García Fuentes, María Dolores			Larequi Apesteguia, Nerea		
García Leranoz, Elisa			Larumbe Cía, Iñaki		
García Sánchez, Isabel María			Lecumberri Bruna, María De Iranzu		
Gil Resano, Maite			León Manero, Amaya Consuelo		
Giral Anaya, Leire			Lora Mingote, Ana Isabel		
González De Castejón Hermoso, María Jesús			Loyola Muro, Maitane		
González Huarte, Iñaki			Manrique Aguado, Borja		
González Menéndez, Ricardo			Manrique Sarasola, Maitane		
González Rodríguez, Mónica			Mañeru Madorran, Marta		
González Ulibarrena, Amaia			Mariñelarena Galarza, Izaskun		
Goñi Cenoz, María Asunción			Marquina Salinas, Ana Isabel		
Goy Gurpegui, Rebeca			Marquinez Legarrea, Vanesa		
Goya Ardanaz, Jon			Martínez Arauzo, Cristina		
Goyeneche San Adrián, Iciar			Martínez Oqueransa, José Antonio		Bai
Gracia Martínez, Irene			Martos Martos, Encarnación		
Gurpegui Muro, Joseba Mikel			Melero Mendioroz, Cristina		
Gurrutxaga Errandonea, Igor			Mendive Santos, Javier		
Guruciaga Reparaz, María			Merino Fernández, Raúl		
Hermoso De Mendoza Sainz De Ugarte, Jesús Manuel			Merino Lorea, Iñigo		
Hernandez Armendariz, Arturo			Merino Salón, Elena		
Hernandez Morillas, Nekane			Miranda Lizarraga, Estibaliz		
Hernández Ostiz, Sandra			Montalvo Arenzana, Inmaculada		
Hernández Pérez, Ana Pilar			Moreno Igoa, Cristina		
Horstmann, Natalia Consolación			Moriones Sanz, José Antonio		
Huarte Mendicoa Izu, Gabriel Ambrosio			Mugica Alsua, Bakartxo		
Huartermendía Goñi, Gema			Muro Barbarin, Mikel		
Ibañez García, Miguel			Navarro Aristorena, Aitor		
Ibarrola Labiano, Marta			Navarro Pérez, Saioa		
Ichaso Ardanaz, Daniel			Nogales García, Carmen		
Ilundain Ilundain, Beatriz			Ollo Ros, María Mar		
Indurain Valencia, Isidro			Oscariz Eraso, Diana		
Iraizoz Olaetxea, Arkaitz	Bai	Bai	Otazu Larrasoaña, Uxua		
Iribarren Recarte, Itziar			Palomo Mateos, Sonia		
Irisarri Andueza, María Aranzazu			Pascual Suárez-Bustamante, María José		
			Paz Barea, Laura		

Izen-abizenak	Ezgaitasuna = > % 33	Egokitzea eskatzten du
Peña Lorente, Izaskun		
Perez Figueroa, Ivan		
Pérez Navascués, Francisco Javier		
Pezonaga Jauregui, Ana María		
Posadas Ramón, Izaskun		
Redondo Ruiz, Ekiñe		
Renedo Varela, José Ignacio		
Ripa Jorda, Laura Emilia		
Rodríguez Alonso, María Teresa		
Rojas Goicoeandia, David		
Ruiz De Eguino Martínez, Beatriz		
Sabalza Navallas, Marta		
Samper Narvaiz, Alicia		
San Martín Rezusta, Ana		
Sánchez Pielago, Jaime		
Sertucha Azcárate, Aitziber		
Servián González, Eva María		
Silvestre Manso, Ascensión		
Sola Lerga, María Laura		
Solanilla Navas, José Antonio		
Soria Martín, Christian		
Soto Ortigosa, Irazu		
Teilleri Vicondoa, Silvia		
Ugarte Uson, María		
Ungureanu, Mariana-Mihaela		
Urbiola Laparra, Estibaliz		
Urtasun Díaz, Rosana		
Urtaza Bilbao, Ion Koldobica		
Vadillo Gavari, María Cristina		
Vega López, Begoña		
Vicente Cillero, Maider		

Izen-abizenak	Ezgaitasuna = > % 33	Egokitzea eskatzten du
Vidondo Aznar, María José		
Villafranca Barceló, Gema Manuela		
Villar Hernández, Silvia		
Yerro Yerro, Félix		
Zabalza Zamarbide, José Eduardo		
Zuasti Pagola, Beatriz		

Ez dago izangai bazterturik.

2. Xedatzea hauexek izanen direla epaimahai kalifikatzaileko kideak:

Epaimahaiburua: Maiorga Ramirez Erro jauna, Nafarroako Parlamentuko 1. idazkaria.

Epaimahaikidea: Jorge Balduz Gil jauna, Nafarroako Arartekoaren Bulegoko administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikaria.

Epaimahaikidea: Ainara Rodríguez Jiménez andrea, Nafarroako Kontuen Ganberako auditoria-ko teknikaria.

Epaimahaikidea: Nekane Iriarte Amigot andrea, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatua.

Idazkaria: Manuel Pulido Quecedo jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

3. Agintzea behin betiko zerrenda hau argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Parlamentuko iragarki-oholean eta www.parlamentodenavarra.es webgunearen "Transparencia/Listas y convocatorias personal/Convocatorias públicas de personal/Ejercicio 2016" atalean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

